

Javier Morrás Iturmendi

Gernika-Lumon jaio zen (Bizkaia), 1967an. Ezkonduta dago eta hiru seme-alaba ditu.

Zuzenbidean lizentziatua da Nafarroako Unibertsitatean (1990) eta espezializazioko ikastaroak ditu: langileen zuzendaritzan, giza baliabideetan, lan-arriskuko prebentzian eta enpresa-finantzian.

Bere ibilbide profesionalean, Vigilancia y Seguridad Navarras SA enpresan Langile eta Zerbitzuetako buru eta Zuzendaritzaren albokoa izan zen 1991 eta 1992 artean. Ondoren, zuzendari-kargua bete zuen Nissan Forklift España SA (1995-2000) enpresako Giza Baliabideetan eta Gráficas Estella SA enpresan; azken horretan Kalitate eta Ingurumen Kudeaketako zuzendaritza ere hartu zuen (2000-2003); eta Trelleborg- Inepsa SA enpresan (2003- 2012).

Alor politikoan, Unión del Pueblo Navarro-ko afiliatua da. 1992-1995 artean Nafarroako Gobernuako Industria, Merkataritza, Turismo eta Laneko kontseilariaren gabineteko idazkaria izan zen. 1995-2000 artean foru-parlamentari aritu zen, eta kargu hori bere lan profesionalarekin bateragarri egin zuen, harik eta 2000. urteko azaroan kargua utzi zuen arte lan-arrazoiak eta arrazoi pertsonalak tarteko. Parlamentari, ondorengo ardurak izan zituen: Europako Gaietarako batzorde parlamentarioetako lehendakari eta Lan Ezbeharren Ikerketarako batzorde bereziko lehendakaria; eta eledun Industria, Merkataritza, Turismo eta Laneko batzordean eta Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barneko batzordean.

1997. urtetik, Pertsonen Zuzendaritza eta Garapenerako Elkarteko Nafarroako batzordeko kide da.